

# Eibar eta Oleta herrietako hikako tratamenduak

INAXIO LOPEZ DE ARANA ARRIETA\*

Artikulu honen bidez, hikako tratamenduak bertatik bertara aztertu nahi izan ditut. Horretarako, bizkaieraren eremuko bi herritara jo dut: bate-tik, Oletara, Aramaioko udalerrian baina Otxandio ondoan dagoen herrixka zoragarrira; eta bestetik, Eibarrera, Deba Behereko herri jendetsu eta ezagunera. Bietan ere hiztun bana aukeratu eta elkarrizketatu egin dut, bere inguruko hikako tratamenduaren berri eman diezadan. Argi dago askoz ere hiztun gehiago behar direla, azterlana fidagarriagoa eta zientifikoagoa izango bada. Hiztun bakar baten irizpideak hiztun horren erabilera besterik ez du islatzen. Ezin da, beraz, ondorio orokorrik atera Eibar eta Oletako bi lagun horiek hikako tratamenduaren arloan duten jarrera eta erabileratik abiatuta. Jakin-garri askoak iruditzen zaizkit, hala ere, hiztun horiek emandako argibideak, nahiz eta begien bistakoa den euskararen tratamendu berezi hori sarritan eskualde berean etxez etxe eta herriz herri aldatzen dela eta bi lagunek emandako datuak ezin direla inola ere ezeren arau izan.

Informazioa eskuratzeko erabili dudan prozedurari dagokionez, galdetegi bana erantzunarazi diet nire laguntzaileei. Bientzat galdetegi bera erabili dudanez, galderak behin baino ez dira azalduko, eta haien azpian, dagozkien erantzunak. Galdetegiaren ondoren, bi laguntzaileei jarritako halako itzulpen-azterketa bat dago: erdarazko esaldi batzuk emanda haien euskarazko itzulpena eman behar izan zuten adizki alokutiboak erabiliz. Gero, iruzkin bat dator bi lagunek emandako erantzunen eta egindako itzulpen-lanetatik ateratako konklusioen gainean. Azkenik, aditzen paradigma dator, Oletako eta Eibarko bi hiztunen laguntzarekin ondua.

\* Euskal filologoa eta itzultzailea.

## GALDETEGIA

0. Datu pertsonalak.

Adina:

Oleta: 58 urte.

Eibar: 69 urte.

Sexua:

O: gizona.

E: emakumezkoa.

Jaioterria:

O: Oleta (Aramaio-Araba).

E: Bergara, baina 55 urte dira Eibarren bizi dela.

Bizilekua:

O: Aurtola (Oleta).

E: Ipurua (Eibar).

Aitareen jaioterria:

O: Oleta.

E: Bergara.

Amaren jaioterria:

O: Oleta.

E: Eskoriatza.

Ogibidea:

O: doitzaila.

E: etxeandrea.

1. Hikako tratamendua ezagutzen duzu?

Oleta: Bai, ezautzen dot, bai.

Eibar: Ezagutu, ezagutu... nik neuk erabili egiten dut baina jende gitxikin. Zoritxarrez, askok eta askok ez dakite. Orduan, erabiltzen dut nire nebarekin eta beste lagun batekin... eta holan gaztieri tta bai zeharkaka gutxi, baina bai erabili egiten dut.

2. Nondik dakizu? Nondik ikasita edo? Baserrian ikasita?

O: Bai, baserriaren ikasitako da lagunaz da etxetik be bai.

E: Bueno, nik neuk jakin, etxian entzunda geixen bat. Anaiak olaxen iñ izan esta eta etxian ikasitakua dakit nik.

3. Noiztik?

O: Umetatik. Etxian ikasitako ta nire lagunekin beti beti iketan, zarrau bat ezpa da.

E: Geixen be, gerra denporan baserrian egon giñasen. Urduan, gure lengusañak-eta itanuan itte eben, eta zelan eitte eben itanuan, hantxe ikasitakua dakigu geixen bat be.

4. Zure aitak inoiz erabiltzen zuen?

O: Etxien, batzuri bai, beste batzuri ez. Niri beti iketan.

E: Gure aittari ez jakon gustatzen itanua. Gure aittak itte zetzan itanua bere loiberi, baina mutillari. Berak pentsatzen zeban errespeto faltia zela bes-tela. Neskeri "zu" itten zeskuen eta mutillari "i" baina loiberi, ze bere semiarri be ez zetzan itten "i". "Zu" itte zetzan bere semiarri.

5. Eta zure amak...

O: Batzuri ein tse “zu”, iketan ein bierrien. Baie anai-arreba artien iketan ein dogu beti.

E: Gure amak... behin bez. Gure amak bere aiztekin “i” itten dau. Bueno, bere aizta gaztiaguekin, nausixagui “zu”. Gure amak daneri “zu”.

6. Zuk inoiz erabiltzen duzu?

O: Nik iketan... zarrauai ez. Ni baie zarraue dieneri da gazte batzuri “zu” eitte tset.

E: Itanua? Bai, ba nik erabiltzen dot nire lagun batekin beti. Mutil gaztieri “i”, eta asarratzen naizenian, nire aizteri be “i”.

7. Eta erabiltzen ez duzunean, zergatik ez duzu egiten?

O: Ez dakit, nik uste dot dala ola unbetan ero gartzetan... edo ola artu dogulako kostunbrie. Ez dakit neuk pez zergatik dan.

E: Ez dot erabiltzen, ba, nire lagunak ez dakixelako. Nire lagunak “zu” esaten dabe, orduan ba neuk berai naiz da noizepeñian “i” esan, eurak neri “zu” esate este ta gero, norbera pixkat kortauta gelditzen da. Oñ badakat lagun bat “i” itte estana eta neuk be “i” itte etzatena berari. Niretzako itanuan ittia ez da errespetu faltia, ez, al contrario, gustatuko litzadaket danok itauan ittia. Niri neuri oso jatorra pentsatzen jata, baña ez deskue erakutsi, ez deskue erakutsi, beti “zu” eta “zu”, geixen bat be. Bueno, ni Eibarren bizi izan naiz beti eta orduan nik mutillen artian beti somatu izan dot “i” itten... ezta? Baña nesken artian in dogun apurra “zu” izan da beti.

8. Zeure buruarekin, zeure artean zeozer pentsatzen duzunean, hikako tratamendua erabiltzen duzu?

O: Nik iketan neure buruaz bai, iketan.

E: Zuketan geixao erabiltzen dot. Neure buruakin ernegatzen naizenian, zeoze gaizki urten... orduan asten naiz txinparta darixola itanuan. Nik neure buruarekiko nabillenan neskiari bezala itte etzat.

9. Zuka normalean egiten duzun batekin haserratzuz gero, hikara pasatzen zara?

O: Bai, por ejemplo, nire alabai. Ori nik pentsatzen dot dala neure arrazoie aurrea ata guroanien, ba orduen, apur bat esplosiño edo eitten dozu iketan. Errespetu geixeau artu deixela pentsatzen dozu iketan einje ero. Nik olako gauza bat pentsatzen dot. Errespetu geixeau noberak autoridade geiauk iketan einje ero olan.

E: Beti itanuan, asarretzen naizenian itanuan beti. Azkenian, neure gizonakin be bai... Asarratzen nintzanian “i” ari be esaten netzan.

10. Emeak diren animaliekin nola egiten duzu berba?

O: Bardin, iketan.

E: Nik berdin itte etzet daneri, danak arrak balira bezela.

11. Eta emakumeena erabiltzen duzu ala...?

O: Bai, iketan baie axe dan moruan, enbrie dan moruen.

E: Ez. Animalia daneri mutillei bezela. Alperrik izango dira emiak, berdin itte etzet nik. Berdin-berdin desta. Emia baldin bada, bixei “i” ta “to”, baña mutillei bezela.

12. Jainkoari berba egiten diozunean (baina ez buruz dakizkizun otoitzen bitartez), nola egiten diozu?  
 O: Zuka, euskaraz eitte doanien Jaungoikoaz beti zuka eitten dot.  
 E: Ez, Jangoikoari beste errespeto bat detzat nik, eta nik “zu” itte etzat Jangoikoari.
13. Ama birginarekin nola egiten duzu?  
 O: “Zu” beti, eta euskaraz dana “zu”.  
 E: Bueno, Arrateko Amakin nik dena euskeraz itten dot, eta beti “zu”. Ez gare ezitta “i” itteko bezela. Ez gaituzte olan azi, ez.
14. Emazteari edo senarrari nola egiten diozu?  
 O: Emazteari “zu” eitte tset.  
 E: Senarra zanari? Nik senarra zanari beti-beti “zu”. Orixe, egunen baten igual asarratu ta... “ixildu ari! Ganorabako gauzarik esan barik eta!”. Olako batzuk esan izan detzaraz.
15. Eta ezkongaietan?  
 O: Bardin.  
 E: Ez, orduan “zu”... Eta sarri erderaz, zoritxarrez orduan... euskera debekatuta egon zanez, ba... erderaz.
16. Orduan zuek ezkongaietan beti zuka?  
 O: Bai, baie nik emazteaz sarritten erderaz eitten dot, arek euskeraz ez dakixelako ondo. Emaztie Amurrion jaioa da, baie ez daki euskaraz ondo. Baie “zu” eitte tset euskaraz emazteari.
17. Seme-alabei nola egiten diezu?  
 O: “Zu” eitten tset bixeri, alaba bi doaz eta “zu” eitte tset bixeri. Baina aserraten nazenien, “i”. Len esan doan moruen, ba, orduen esplotau eitten da apur bat.  
 E: Nik ez dakat, baña eukiko baneu ez dakitt zelan eingo netzen. Seguritik “zu” ingo netzen neskeri, olaxen ikasitta geruazen, da mutilleri ez. Neskeri “zu” eta mutilleri “i”. Ez dakitt zergatik dan! Orixe da ezin neikiena esan.
18. Aitari nola?  
 O: Nik aittei “zu”, zanai bai, il zan.  
 E: Aittari! “Zu”, errespetu handiz gañera. Eta aittan aurrian ez esan “i”. Gure aittak ez zeban lagatzen “i” esaten.
19. Eta amari?  
 O: Amai, bixi da eta “zu” eitte tset bai, iketan ez dot iñoz areaz eitte, bai.  
 E: Bai, daneri “zu” gurian, daneri “zu”.
20. Eta aitita eta amamari?  
 O: “Zu” bixei, bardin.  
 E: Daneri “zu”. Gurian besterik ez da iñ. Danei, danei, danei “zu”. “I” Ermuan eitten da andra-gizonen artian, eta an denari, amari be igual. Ba-

ña gu errespetu geixaukuak gara eibartarrok. Ez, guk “zu” edukaziño aundiz.

21. Anaiari edo nebari?

O: Anaixek? Bi daukaz eta bixeri eitte tset iketan.

E: “I”, nik nire nebai “i”.

22. Arrebari edo ahizpari?

O: Bati eitte tset “zu”, gazteenai, ta besteai iketan. Olan hartu gendun gazte denporien ta Milagroseri eitte tset “zu”, arek niri be “zu”. Bera ni baie gazteua da, ni naz zarrena da anai bi daukaz ta eitte tset iketan ta arreba bi daukaz, bati eitte tset “zu” ta besteai “i” eitte tset. Arreba zarrenai eitte tset iketan eta gazteenai, arrebeetatik gazteenai, eitte tset “zu” eta arek niri be bai. Oi gertatu ein da emen etxe askotan da emen dau beste gauza bat, oitturie ero kostunbrie esaten tsau, sarritten gaztiek iketan eitten tso anaixei ta anaixek berak, zarrenak, “zu” eitte tso gazteai.

E: Aizperi, gaztiari “i” eta nausixari “zu”.

23. Izekoari?

O: “Zu”, bai.

E: Ez, daneri “zu”, nik daneri “zu”... lengusiña bati “i”, Angelesi.

24. Osabari?

O: “Zu”.

E: Osabari be bai, “zu”.

25. Lobarri?

O: Lobei? Lobei “zu” eitten tset ta erdaldunak daukaz loba batzuk eta arei iketan erderaz, baie euskalduneri “zu” eitten tset lobei.

E: Mutillak badira “i”, ta neskari “zu”. Pentsatzen jata neri, mutilleri “i” esan ezkerio, “matxitoagua” ero...

26. Amaginarrebari?

O: Amaginarrebai “zu” eitte tset, il zan baie “zu” eitte tset.

E: Ez, ez dakat, baña beti “zu”, beti “zu” daneri.

27. Aitaginarrebari?

O: Aitaginarrebai “zu”.

E: Bardin.

28. Koinatuari?

O: Koñatuai iketan.

E: Koñatuari “i”. Bi dakadaz eta bixeri “i”.

29. Koinatari?

O: “Zu”. Beti danok eitte tsau “zu”. Emen gitxi dau iketan eitte tsenik koñatai.

E: Koñata bati “i”, Imanolen andriari “i”, bestiai “zu”. Bata Bergarakua da baña erdaldunen alabia ta ondo ez daki euskeraz, orduan erderaz ein bihar izaten dot eta euskeraz itten dotenian ba “zu”. Bestia naparra da ta arekin bai, “i”.

30. Neskatan edo mutiletan aritzen zinenean zein tratamendu erabiltzen zenuen?

O: Beti “zu”, ola ligatzen xuabe ta... bada.

E: Ez, ez... orduan ez zan itten euskararik. Neska-mutillen artian nere garaietan erderaz itte zan, hain zuzen be, gerra sasoi edo gerra ostia zan ta kalia erdera zan nagusi, gaur be bai zoritxarrez, baña orduan dana itte zan erderaz. Nik be nere neska-mutil lagun guztiekin erderaz eñ izan dot.

31. Zu kortejatzera etortzen zirenean, nolako tratamendua erabiltzen zuten?

O: Ez dot euki olako suerteik nik. Gu leloak ixenda, igerri ta alde eitte ben gero. Baie “zu” eitte ben. Beti zuka. Ixen be, orduen pentsau be ez gendun eitte ikan datorren bat ortan datorrenik be.

E: Erderaz, erderaz! Beti erderaz itte zesten, danak erderaz... Nahiz ta danak euskaldunak izan.

32. Ezkongaietan emaztearekin edo senarrarekin nola egiten zenuen? Eta ezkondu ostean?

O: Erderaz iketan, “de tú”. Euskeraz “zu”.

E: Nere senarrak hobeto zekixan euskeraz erderaz baño, baña erderaz eitte zestan, bai!

33. Lagun artean zaudela, zer tratamendu erabiltzen duzu guztientzat hitz egiten duzunean?

O: Iketan bai, danak sartuz gero konbersasiñuen, bai. Bai, “guk ein geinkek au ta bestie”, batzuk “zu” eitteko eon arren, “guk ein geinkek”, “ein geinkek”, ja iketan. “Au ein geinkek ero bestie, ze deitxazue?”, baie iketan.

E: Lagun artian gaozenian, ba, “zu”. Nik danei “zu” itte etzet, baña zuzenian bat... bateana dirigidu bianaizenian, itanua dakixan hori, Arantza, ari “i”, naiz ta beste guztiekin ba... “zuk esan dozu hau eta bestia ta aruntzakua ta nik esan dot au ero entzun dot”, ta gero bestiari esango tzat “akordatzen aiz... an zera ikusi giñuana, ez takiñ..., ez takan gogoan hori?”. Ari “i”, baña nai barik, ta berak berdin neri, “i”, ta beste iñori ez, baña ori da bestiak ez dakixelako itanuan.

34. Zu baino zaharrago den bati, berarekin harremanik ez badaukazu, nola egingo diozu?

O: Zuka, zuka bai.

E: “Zu”, artuemonik ez badakat, “zu”, bai.

35. Gutxi gorabehera zure edadekoa izanda, harremanik ez badaukazu, nola egiten diozu?

O: Zuketan. “Zu” lenengo, konfirantzie artu ero ikusi arte.

E: Artuemonik ez badakat, “zu” ingo etzet daneri.

36. Zu baino gazteago den bati, harremanik ez badaukazu, nola egiten diozu?

O: Bai, bixetara eitten dot, gazteuau igual “zu” eitte tset eta urrenguen iketan be bai.

E: Baita, “zu”. Artuemonik ez badakat, daneri “zu” itte etzet, daneri naiz ta ni baino gaztiagua izan. Mutillei ez: mutillei “i”, nagusixagua bada be bai, eta gaztiagua bada be bai.

37. Zu baino urte gehiagoko bati, zeuen artean harremanik izanez gero, nola egiten diozu?  
O: Danai “zu” eitte tset, danai uste dot, baten bat ez bada.... ixex danai “zu” eitte tset ondo ezautu arren.  
E: Normalmente “i”, artuemonan egon ezkerio.
38. Zure edadeko bati, zeuen artean harremanik izanez gero, nola egiten diozu?  
O: Iketan, iketan bai.  
E: Nire edadeko bateri “i” ingo netzake.
39. Zu baino gazteago den bati, zuen artean harremanik izanez gero, nola egiten diozu?  
O: Bixetara eitte tset bai, bai, zuketa ba ezaututen doanari...  
E: Artuemonak eduki ezkerio be, batzuetan bai segun, neskeei gutxiago, ez dakit, mutilleri nai barik: “Ea! Hor doia i! Ondo abil! Nolakoa aizen! Zer in dok?”. Ta neskeei gitxiao. Ez dakitt. Oitu barik garelako izango da seuru.
40. Eta harreman estua duzun batekin?<sup>1</sup>  
O: Bixetara eitten dot, batzuri eitte tset “zu”, artuemonak euki arren, eta beste batzuri eitte tset iketan. Oitturie da.
41. Zu baino urte gehiagoko bati, berarekin harreman estua izanez gero, nola egiten diozu?  
O: “Zu” beti. Artuemon aundixek eukitte be, beti “zu”.
42. Zure edadeko bati, berarekin harreman estua izanez gero, nola egiten diozu?  
O: Batzutan eitten dot iketan eta beste batzuetan zuka, segun zein dan. Batzuri ezin tset ein bai iketan, ori da zelan dxauzi dxaten pertsona oi. Oi da oitura bat pentsatzen dot nik. Ixen be, guretzako iketan... ondo ezagutute be batzuri “zu” eitte tset.
43. Kanean ezezagun batengana hurbiltzen zarenean, ordua edo dana dalakoa eskatzeko, nola egiten diozu, hika ala zuka?  
O: Beti zuketan eitte tset, “zu” naiz da gazteau ixen, euskaraz baldin banoie zuka beti. Emakumie baldin bada, geixeau oiniño.  
E: Galdera bat egitera banoia, euskaraz beti, baña “zu”.
44. Eta norbait etortzen bazaizu zerbait galdezka, nola erantzuten diozu?  
Berak darabilen tratamendu berbera erabiliz ala adina, sexua eta abar kontuan hartuko zenituzke, era bateko edo besteko tratamendua erabiltzeko?  
O: Bearbada ez, axe ika badator eta zarraue bada, beti zuka ingo tset, bai, axe ika etorri arren. Eta zuka badator, nik bardin. Emakumiek Oletan etxeoagatik aparte, batek ero bik eitte duste iketan; bestiek, barrez, zuketan eitte duste. Familixekuek geixenak iketan eitte duste baie ortik apartekuek ba

<sup>1</sup> Eibarko lagunaren 40., 41. eta 42. galderak erantzuntzat eman ditut lehenago emandako azalpen guztietan oinarrituta.

geixenak zuketan eitte duste. Gixon gehixenak, barrez, iketan eitte duste niri.

E: Bera ikan hasten bada, nai barik urtetze esta neri, eta or doia parrafadia.

45. Imajinatu baserri baten jabea zarela. Nola egingo zenioke zeure morroiari edo menpekoari?

O: Nik morroiari iketan, iketan eingo neuskio.

E: Nere menpekoari eingo neskio ba, len esan dotan bezela, mutillak badira hika. Baña gizon nausixak baldin badira, “zu” ingo neskio ta emakumiei be “zu”. Gaztiak baldin badira “i”, baña nausixak badira “zu” ingo neskie.

46. Imajinatu baserri baten morroia zarela. Nola egingo zenioke zeure nagusiari edo jabeari?

O: Nik neure ugazabai zuketan eingo neunskio.

E: Jabiari “zu” ingo neskio, “zu” ingo neskio, ez dakitt nik errespetuagaittik ero zeattik baña “zu” ingo neskio, jabia ez baldin bada nire kuadrillakoren bat edo olakoren bat.

47. Dendetan, aurrezki-kutxetan, udaletxean, erakunde eta administrazioegoitzetan, nola egingo duzu berba, hika, zuka ala berorika?

O: Ni euskaraz banoie berbetan, “zu” eingo dot lenengo. Baitte gazteue bada be, lenengo dxute nazenien, ba zarraue bada beti eingo tset “zu”. Baie gazteue ixen arren, lenengo dxute nazenien, “zu” eingo tset.

E: Ni bankura juaten naizenian, anguk erdeldunak direzelako, leiatillan daozenak, erderaz itte etzet. Baña Caja Laboralera juaten naizenian, “i”. Euskeraz eta “i” gañera Laboralian daneri, neska eta mutilleri.

48. Udaletxean, ertzain, algoazil, sereno eta horrelakoei zelan egiten deutsezu?

O: Zuketan.

E: Udaletxian badakadaz iru ero lau pertsona “i” itte etzetanak, euskaraz, e! “I” bestiei erderaz itte etzet.

49. Euskaldunak balira, errege, lehendakari, diputatu, zinegotzi, ministro eta horrelakoein zer tratamendu erabiliko zenuke?

O: Nik zuka. Oi aipatu dot len, errespetue. Ixen be, oi sartu duskue beti, oi da umeetatik ikasittako gauza bat, zarrau bateri ero gixon andi bateri beti zuketa eitteko. Ta emen geiau da; emen abadiari len “berori” esan bixakon.

E: Danei “zu” eingo netzakie. Oin, danei-danei euskeraz, ori bai!

50. Zure ustez, zer da hikako tratamendua?

O: Nik uste dot dala apur bat oitturie eta errespetue, bixek, bixek. Nik zuketan eitte tset askori eta konfiantza aundixe dauket arekin, baie, alan be, zuketan eitte tset. Oitturie da ta nik laguneri, errespetu andixe euki arren, iketan eitte tset, ez da a beldurragatik eta ez zeragatik. Guk ikesi dogu oi iketan eta zuketan eitte. Nagusixaueri zuketan eitte tset apur bat errespetu moruen, baie orrek ez dau esan gure guk konfirantzaik ez dogunik. Nik, por ejemplo, nire osabaz konfirantza andixe dauket eta zuketan eitte dot.



E: Neretako itanua da gauzarik polittena, dagonik polittena, baña zori-tzarrez gaztetan, mutilleri bai, baña neskeri ez dakit zergaittik ez deskuen erakutsi. Basarrixetan bakarrik eñ izan da “i” ta nik dakiten apurra Eskoriatzako basarrixan ikasittakua da gerra denporan, neure lehengusineri ikasittakua.

51. Berori tratamendua ezagutzen duzu?

O: Guk ezautu baie... ointsu arte “berori” eitte guntsen abadiai. Lenau etorri zan abade bat eta arek esan uskuen ez eitteko geiau areaz “berori” eta bai zuketan. Zuketan uste dot dala “de usted” tratamendua. Ni akordetan naz ni mutiko denporien iñork pentsau pez “zu” esatie abadiai, “berori”, eta gero etorri zan apur bat “zu”, oi eittie. Neuk beteinaixuai iñoz ez tset “berori” esan, baie nik ikusitte daukaz emen zarrauk ta...

E: Neretako, “berori” ez da esistitzen. Badakizu zergaittik? Niretzat, gauzarik aundixena Jangoikua da eta Jangoikuari “zu” itte etzau. Orduan, Jangoikua baño geixau iñor ez da. Ori len zan, gure amak eta gurasuak bai, “berori” medikuari tta abariari. Ez, ez, nik daneri “zu”, mediku, apaiz, daneri “zu”, Jangoikuari be “zu”. Orduan, erregia neretako ez da Jangoikua baño geixago.

52. Medikuari-eta?

O: Baitte, medikuai “berori” tratetan.

E: Nik ez dot erabiltzen. Ezta behin bez!

53. Eta fraileei-eta?

O: Praile askori “berori” be bai, baie nik ez dot erabiltzen. Ez oin, ez iñoz bez, pentsau be ez dot eitten. Oi gure mutiko denporien erabiltzen zan asko eta ointsu arte be bai. Oin ez dot uste. Orrek zarrak be, baten batek igual “berori” eitte dau, baie oin ez dxako esaten “berori” abadiai pe. Nik obispoaz ez dot tratau, baie zuketan eingo neunskio ari be.

E: Bein juan nintzan monjak bisitatzera eta asi nintzan “zu” esaten, eta esan zesten zer zan ori. Neretako ori dana formalismo zer bat da.

54. Abokatuari, notarioari...

O: Eta notaixuai, ba areaz iñoz eon naz, bai ari ez tset “berori” eitten. Ixen be, areaz normalmente ez dogu eitten euskeraz.

E: Neretako iñobe ez da iñor baino geixao. Orrexegattik ez dot erabiltzen ez abokatuakin ez inorekin bez.

55. Zer iritzi duzu berorikari buruz?

O: Nietzako sobran dago. Oi da “buescencia” esaten den moruen erdaraz eta uste dot pasautako gauzie dala eta agian gu ez gaoz oittute olako jende aundixaz eote, baina esan gurot len esan doana, abadiai eitte oi uste dot larregiko forma bat dala.

E: Neretako larregiko formalismoa da “berori” esatia.

56. Zure ustez, orain lehen baino gehiago egiten da hiketan?

O: Nik uste dot gaztien artien asko geixau eitten dala ika len baño. Ba, ni bein eon nitzen Artxinttako lagun batzuen baserrixen da orduen arrittute geratu nitzen ba aren aittai iketan eitte tselako ta oi guretzako zan txoke bat. “Onk ez dauko errespetuik bere aitteaz”, pentsau neban nik, baie ikuste zan gero lagun ikaragarriek ziela eta iketan eitte ben be bai. Eta au ez da atzoko gauzie. Orduen sasoi, guk 25 urte eukitte genduzen. Oi ez da normala.

Emen ika aittei eittie errespetue galtzie da eta nik topeta dot oin etorri leikelala oi, da laster, gañea. Etorri leikela diñot, ez dakit etorriko dan ain arin, ba oiniño, len lez, ikuste dalako aittai eta amai zuketan eitte dxakela. Oittura batzuk eongo die. Leku batzutarano sartu da iketa. Leku guztixetan ez da bardin ixengo. Baie, ondo pentsaute, ondo topeta dot nik iketan eittie.

E: Ez dot uste. Berrogeitamar urtetik gorakuak iketan itten dabe, neskak eta mutillak be bai, berrogeitamar urtetik gorakuak. Baña berrogeitamar urtetik berako geixenak ez dakixe euskera ta dekixenak ba ointxe ero euskaltegietan ikasitta ero ikastoletan ikasitta ta an "i" ez dabe ikasi. Ori penagarrixa da.

57. Lehengo eta gaur egungo hikako formen artean desberdintasunik ikusten duzu?

O: Nik ez dot topeta diferentziaik. Bardin eitten da. Ez dau diferentziaik.

E: Bai, oingo itanua entzuten dozunian neretako goxuagua da. Neuk oingo itanua ez dakitt, zerbait jakingo dot, baña ez Eibarko itanua moruan. Eibarko itanua ba bai, obeto dakitt.

58. Jarraian esaldi batzuk emango dizkizut euskaraz eta zuk euskaratu beharko dituzu hikako formak erabiliz.

### Baldintzazkoak

1. Si yo fuera al monte, cogería setas.

O: Ni basoa dxungo banitzok, perretxikuek artuko ñukezak.

E: Mendira juango banitzok, perretxikuak artuko najittuek.

2. Si nos regalase flores, les daríamos las gracias.

O: Lorak erregalauko badxuskuzek, eskerrak emongo gunskidxoezak.

E: Lorak erregalauko bajeskuek, eskerrak emongo jetsauz.

### Subjuntiboa

3. La madre quería que su hijo fuera a la escuela.

O: Amak gure ixen dxoa bere semie eskola dxun daitten.

E: Amak bere umia eskolara juan deilla nai juan.

4. Mi padre quiere que me quede en casa.

O: Nire aittek gure dxok ni etxien geratu naitten.

E: Nire aittak ni etxian gelditu naixan nahi jok.

### Erlatibozkoak

5. El queso que le gusta al pastor es de cabra.

O: Pastoriai gustatzen dxakon gaztaie antzena dok.

E: Artzañari gustatzen jakonan gazta auntzana dok.

6. Las alubias que he comido me han sentado mal.

O: Dxa doazen babak txarto ein dxustek.

E: Jan ditturazen babak gaitz in jestek.

7. El coche que vio mi amigo estaba roto.

O: Nire lagunak ikusi ban kotxie apurtuta dxegua.

E: Nire lagunak ikusi juan kotxia apurtuta jeguan.

### Kausalak

8. He venido porque querías verme.

O: Etorri nok ik ikustie gure ixen balako.

E: Ikustia nahi ninyualako etorri nok.

9. Esta mañana la chica ha comido pan porque no tenía otra cosa.

O: Gaur goizien neskiek ogixe dxan dxok, beste gauzaik ez daulako euki.

E: Gaur goizian neskiak jan jok ogixa, beste gauzarik ez zekalako.

### Konpletiboak

10. Hemos oído que irán a Bilbao.

O: Entzun dxau Bilbora dxungo diela.

E: Entzun juau Bilbora juango dirala.

11. Te han dicho que vendrán mañana.

O: Esan dxutek bidxer etorriko diela.

E: Esan deuek bixar etorriko dirala.

### Harridurazkoak

12. ¡Vaya suerte tiene ése!

O: Orrek dxeukek suertie!

E: Orrek jakak suertia!

13. ¡Menudo tiempo tenemos!

O: Zelako denporie dxeuku!

E: Ederra egualdixa jakau!

14. ¡Qué mal he jugado hoy!

O: Zelako txarto dxokatu dxuat gaur!

E: Zelako gaizki jokatu juat gaur!

### Galderazkoak

15. ¿Qué hace ese hombre ahí?

O: Zer eitten dxok orrek gizonorrek or?

E: Ze itte jok gizon orrek or?

16. ¿A qué han venido tus amigos?

O: Zetara etorri dozak ire lagunak?

E: Zetara etorri dituk ire lagunak?

17. ¿Cuándo viene tu mujer?

O: Nox datok ire andrie?

E: Noiz datok ire andria?

### Aginterazkoak

18. Les he dicho que hagan la comida.

O: Esan txat bazkarixe ein deixela.

E: Bazkarixa itteko esan jetset.

19. Nos han mandado hacer este trabajo.

O: Au bierau eitteko agindu dxuskuek.

E: Lan au ittera bialdu gittuek.

20. A ese chico le han obligado a estudiar.

O: Oi mutiloi obligau dxue estudixetan.

E: Mutil ori ikastera obligau juek.

## ONDORIOAK

Lehenengo eta behin, argi dago bi lagunek gizonen aditzak erabili dituztela. Hori zergatik den erraza da asmatzen: esaldiak nork eman zizkion (neuk, gizon batek) izan zuten kontuan aditz-mota hautatzeko orduan.

Honela darabiltza Oletako lagunak aditz alokutiboak:

- Erlatibozkoetan: ez.
- Subjutiboan: ez.
- Baldintzazkoetan: bai.
- Konpletiboetan: ez.
- Kausaletan: bai.
- Harridurazkoetan: bai.
- Galderazkoetan: bai.
- Aginteran: ez.

Eibarko lagunak, berriz, honela darabiltza aditz alokutiboak:

- Erlatibozkoetan: batzuetan bai, beste batzuetan ez.
- Subjutiboan: ez.
- Baldintzazkoetan: bai.
- Konpletiboetan: ez.
- Kausaletan: baliteke inoiz ere erabiltzea.
- Harridurazkoetan: gehienetan bai.
- Galderazkoetan: bai.
- Aginteran: ez.

## GALDETEGIARI EMANDAKO ERANTZUNAK DIRELA ETA

Eibarko laguna euskaldun zahar alfabetatua da, euskara batuaren eragin nabarmena duena. Oletako laguna, berriz, alfabetatugabea da eta bere herriko hizkeraz garbi-garbi egiten du, kanpoko bat ere eraginik ez duela.

Bi euskaldun hauek hikako tratamendua ezagutzen dute, nork bere base-rrian eta bere etxean ikasi duelako.

Oletako lagunaren kasuan, bere aitak berarekin hiketan egiten zuen, baina Eibarko emakumearenean, ez da hori gertatzen, bere nebeekin hikako tratamendua badarabil ere.

Amarekin antzeko zerbait gertatzen da, zeren eta Eibarkoaren amak ere ez du berarekin inoiz hiketan egiten. Kontrakoa gertatzen zaio Oletako lagunari, hari bere amak hikaz egiten baitio.

Oletakoak jende gehiagorekin darabil hika Eibarkoak baino, azken honen lagunek ez dakitelako, antza denez. Haren iritziz, hika erabiltze horrek ez du errespetu falta adierazten, hizkuntza-baliabide hori ohiturari eta baliabidea bera ezagutzeari berari lotuta baitago.

Aramaioko laguna bere buruarekin ari denean, beti hikako tratamendua erabiliko du; Gipuzkoakoak, berriz, gehienbat zuka erabiltzen du horrelakotan.

Biek ere hikara pasatzeko joera dute, haserretuz gero.

Animaliekin hitz egiteko orduan, desberdin jokatzen dute. Eibarkoak abere guztiekin arrei dagokien hizkera erabiltzen du; besteak, ordea, sexuen artean bereizketa egin ohi du.

Biak Jainkoari edo ama birjinei berba egitean zuka aritzen dira.

Bere ezkontideari eta ezkontide zenari, ezkondu baino lehen eta ezkontuta, zuka egiten zieten, euskeraz eginez gero.

Nahiz eta Eibarko lagunak seme-alabarik ez izan, ama balitz, neskei “zu” egingo lieke, eta “hi” mutilei. Oletakoak alaba bakarrik dauka: harekin zuka egiten du. Seguru asko mutila izanez gero, hiketan egingo lioke.

Beren gurasoei eta aitona-amona zirenei zuka egiten diete edo zieten biek.

Eibarkoak bere neba-ahizpekin ia beti hika egiten du, bere ahizpa handienarekin izan ezik. Oletakoak, bestearen antzera, ia-ia beti, bere arreba txikiarenarekin izan ezik. Beraz, hemen ikusten dugu desberdin jokatzen dutela, antzeko egoera batean egonik ere.

Osaba eta izekoei “zu” egiten diete beti.

Eibarko lagunak bere lobei, mutilak izanez gero, hika egiten die eta, neskek badira, berriz, zuka. Oletakoak, denei, euskaldunak diren guztiei, “zu” egiten die.

Amaginarrebari eta aitaginarrebari zuka egiten diete, baina koinatuari “hi”. Oletakoak koinatari “zu” esaten dio, eta Eibarkoak, ostera, bati “hi” egiten dion bitartean, besteari “zu”.

Ligatzeko orduan, badirudi hizkera nagusia zuka dela, xuabe denean behintzat, Oletako lagunak adierazten digunez. Baina Eibarkoak deusku garai hartan erdara zela hizkuntza bakarra.

Lagun artean gipuzkoarra lagun batekin bakarrik aritzen da hiketan, gainontzekoek ez dakitelako. Arabarrak, berriz, hika baino ez omen du erabiltzen.

Berarekin harremanik ez duen eta bera baino zaharragoa den bati zuka egiten diote batak zein besteak.

Berarekin harremanik ez duen eta bere adinekoa den bati “zu” egiten diote biek, hasiera batean behintzat.

Berarekin harremanik ez duen eta bera baino gazteagoa den bati bietara egingo liokete. Egoeraren arabera jokatuko lukete, sexua, ohitura eta abar kontuan harturik.

Bere edadeko bati zuka egingo liokete.

Berarekin harremana duen eta bera baino zaharragoa den batekin Oletakoak beti zuketan egingo luke eta Eibarkoak lehentxoago aipatutako gorabeheren arabera jokatuko luke.

Berarekin harremana duen eta bere adinekoa den batekin biek hika egingo lukete.

Berarekin harreman estua duen eta bera baino gazteagoa den batekin bietara egingo lukete, egoeraren arabera.

Ezezagun bati galdera bat egitera joanez gero, zuka erabiliko lukete biek.

Eibarkoari norbaitek zerbait galdetuko balio, hark erabilitako tratamenduari lotuko litzaioke, galdera hikaz egingo balio ere. Oletakoak, ordea, hika joango litzaiokeena bera baino zaharragoa balitz, zuka erantzungo lioke.

Baserriko jabeak balira, beren morroiari Oletakoak hiketan egingo lioke; Eibarkoak, berriz, gorabehera batzuk (adina, sexua eta abar) hartuko lituzke aintzat.

Baserri bateko morroiak balira, beren jabeari zuketan egingo liokete, jabe hori laguna ez balute, behintzat.

Denda, aurrezki-kutxa, udaletxe eta horrelako administrazio-lekuetan zuka egiten dute, bertan norbait ezagutzen ez badute, behinik behin. Esaterako, Eibarko emakumeak bertako udaletxean eta aurrezki-kutxetan lagun batzuk dituzenez gero, haiekin hiketan aritzen da.

Udaltzain, ertzain, alguazil eta horrelakoekin zuketan egiten dute, beti ere haien artean ezagunik ez badute, denda, aurrezki-kutxa eta horrelakoen kasuan bezalaxe.

Errege, zinegotzi, ministro eta gisa horretako jendearekin ere zuka egingo lukete eta inola ere ez hika eta are gutxiago berorika.

Argi dago hiru gauza hartu behar direla kontuan hika eta zuka erabili behar ote den ebazteko orduan: ohitura, adina eta ezaguera.

Biek ezagutzen dute berorika tratamendua, sekula erabiltzen ez badute ere. Bien aburuz, larregiko formalismoa da.

Hitanoaren erabilpenari dagokionez, iritzi kontrajarriak daude: Eibarkoak gero eta gutxiago erabiltzen dela uste du; Oletakoaren iritzi, berriz, jende gaztea zaharra baino maizago aritzen da hiketan.

Menpeko perpausetan alokutiboa antzera erabiltzen da Oletan eta Eibarran:

- Erlatibozko perpausetan: ez dago alokutiborik.
- Subjuntibozkoetan: ez dago alokutiborik.
- Baldintzazkoetan: beti alokutiboa agertzen da.
- Konpletiboetan: inoiz ez.
- Kausaletan: bai.
- Harridurazkoetan: bai.
- Aginterazkoetan: ez.
- Galderazkoetan: beti.

## OLETA: HIKAKO ADITZAK

### Orainaldia

<b>Eduki</b>	<b>Singularra</b>	<b>Plurala</b>
<b>Nik</b>	dxaukat dxaukan	dxaukaz
<b>Ik</b>	daukek dauken	daukezak daukezan
<b>Arek</b>	dxaukek dxauken	dxeukezak dxaukezan
<b>Guk</b>	dxeuku	dxeukuz dxeukun
<b>Areek</b>	dxaukie	dxaukiezak dxaukiezan

## Lehenaldia

Eduki	Singularra	Plurala
Nik	ñauka	ñaukaza
Ik	auka	aukaza
Arek	dxauka	dxaukaza
Guk	geunka	geunkaza
Areek	dxaukien	dxaukieza

Egon	Orainaldia	Lehenaldia
Ni	nak nan	nengo
I	au	engoan
A	dak dan	dxegoa
Gu	gazak gazan	gengoza
Areek	dazak dazan	dxegoaza

Izan	Orainaldia	Lehenaldia
Ni	nok non	nintza
I	az	itza
A	dok don	za
Gu	gozak	giñea/giña
Areek	dozak dozan	zia

Nor-Nori	Orainaldi Singularra	Orainaldi Plurala
Neri	dxatek dxatan	dxatezak dxatezan
Iri	dxak dxan	dxatez dxatezan
Ari	dxakok dxakon	dxakozak dxakozan
Guri	dxakuk dxakun	dxakuzek dxakuzen
Arei	dxakek dxaken	dxakezak dxakozan

Nor-Nori	Orainaldi Singularra	Orainaldi Plurala
Neri	dxata dxaten/dxatan	dxatezak dxatezan
Iri	dxak dxata	dxataza
Ari	dxakoa	dxakoaza
Guri	dxakua	dxakuaza
Arei	dxakoa	dxakoaza

## Orainaldia

Nor-Nork	A	Areek	Ni	I	Gu
Nik	dxuat dxuan	dxoaz	——	aut	——
Ik	dok don	dozak dozan	nok non	——	gozak gozan
Arek	dxok dxon	dxozak dxozan	naidxok naidxon	au	gaituzek gaituzen
Guk	dxuau	dxuauz	——	au	——
Areek	dxue	dxuez	naidxue	eue	gatzuek gatzuzen

**Lehenaldia**

Nor-Nork	A	Arek	Ni	I	Gu
Nik	ñoa	ñoaza	—	auta	—
Ik	ba	baza	nua	—	gatuaza
Arek	dxoa	dxoaza	naidxo	auta	gatuaza
Guk	gendua	genduaza	—	augu	—
Arek	dxuen	dxuezan	naidxuen	auta	gatuaza

**Orainaldia**

Nor-Nori -Nork	Neri		Iri		Ari		Guri		Areei	
Nik	—	—	dustak	dustazak/ /dustan	txat	txazak	—	—	txat	txaz txan
Ik	dustek/ dusten	dustezak/ dustezan	—	—	tsek	tsaza	duzkuk	duskuzek/ duskun	tsek	tsezak tsezan
Arek	duxtek/ dxusten	duxtezak/ duxtezan	dusk/ dusta	dutez/ dustezan	tsek/ tsen	tsex/ tsezen	dxuskuek/ dxuskuen	dxuskuaza	txek/ txen	txiezak/ txiezan
Guk	—	—	dustau	dustauz	txau	txauz	—	—	txau	tzauz
Arek	dxustek/ dxusten	dxustezak/ dxustezan	dust	dustiez	txek/ txen	txezak/ txezan	dxuskuk/ dxuskun	dxuskuzek/ dxuskuzen	txiek	txiezak

**Lehenaldia**

Nor-Nori -Nork	Neri		Iri		Ari		Guri		Areei	
Nik	—	—	dusta	dustaza	nutxa	nutxaza	—	—	nutxa	nutxaza
Ik	dusta	dustaza	—	—	tsa	tsaza	duskua	duskuaza	tsa	tsaza
Arek	dxusta	dxustaza	dusta	dustaza	txa	txaza	dxuskua	dxuskuaza	txa	tza
Guk	—	—	gusta	gustaza	guntxa	guntxaza	—	—	guntxa	guntxaza
Arek	dxusta	dxustaza	dustia	dustiaza	txia	txiaza	dxuskua	dxuskuaza	txia	txiaza

EIBAR: HIKAKO ADITZAK

**Orainaldia**

Eduki	Singularra	Plurala
Nik	ja(u)kat ja(u)kanat	ja(u)karaz ja(u)zkanat
Ik	da(u)kak da(u)kan	da(u)kazak da(u)kanaz
Arek	ja(u)kak ja(u)kan	ja(u)kazak ja(u)kazan
Guk	ja(u)kau ja(u)kanau	ja(u)kauz ja(u)kanauz
Arek	ja(u)kak ja(u)kan	ja(u)kazak ja(u)kanaz



**Lehenaldia**

<b>Eduki</b>	<b>Singularra</b>	<b>Plurala</b>
<b>Nik</b>	najekan najekanan	najekazen najekazenan
<b>Ik</b>	hekan hekanan	hekazen hekazenan
<b>Arek</b>	jekan jekanan	jekazen jekazenan
<b>Guk</b>	jekaun jekaunan	jekaguzen jekaguzenan
<b>Areek</b>	jeken jekenez	jekezen jekenez

<b>Egon</b>	<b>Orainaldia</b>	<b>Lehenaldia</b>
<b>Ni</b>	nagok nagon	najeuan nengonan
<b>I</b>	ago	euan euanan
<b>A</b>	dagok dagon	jeuan jeuanan
<b>Gu</b>	gauaz gaonaz	geuazen geuazenan
<b>Areek</b>	dauaz daonaz	jeuazan jeuzanen

<b>Izan</b>	<b>Orainaldia</b>	<b>Lehenaldia</b>
<b>Ni</b>	nok non	nintzuan nintzonan
<b>I</b>	aiz	intzan intzanan
<b>A</b>	dok don	zuan zonan
<b>Gu</b>	gaittuk gaittun	gittuan gintzonan
<b>Areek</b>	dittuk dittun	zittuan zittonan

<b>Nor-Nori</b>	<b>Orainaldi Singularra</b>	<b>Orainaldi Plurala</b>
<b>Neri</b>	jatak jatan	jatazak jatanaz
<b>Iri</b>	jak jan	jakaz jakanaz
<b>Ari</b>	jakok jakon	jakuaz jakonaz
<b>Guri</b>	jakuk jakunaz	jakuaz jakunaz
<b>Arei</b>	jakuek jakune	jakuezak jakuenaz

<b>Nor-Nori</b>	<b>Lehenaldi Singularra</b>	<b>Lehenaldi Plurala</b>
<b>Neri</b>	jatan jatanan	jatazan jatazenan
<b>Iri</b>	jakan jakanan	jakanazenan
<b>Ari</b>	jakuan jakonan	jakuazen jakonazenan
<b>Guri</b>	jakuan jakunan	jakuazen jakuzanen
<b>Arei</b>	jakuen jakuenan	jakuen jakuenan

**Orainaldia**

<b>Nor-Nork</b>	<b>A</b>	<b>Areek</b>	<b>Ni</b>	<b>I</b>	<b>Gu</b>
<b>Nik</b>	juat jonat	jittuat juttunat	–	aut	–
<b>Ik</b>	dok don	dittuk dittun	nok non	–	gaittuk gaittun
<b>Arek</b>	jok jon	jittuk jittun	najok najon	au	gaittuk gaittun
<b>Guk</b>	juau jonau	jittuau jittunau	–	au	–
<b>Areek</b>	juek jone	jittuek jittune	najuek najone	abe	gaittuek gaittune

### Lehenaldia

Nor-Nork	A	Areek	Ni	I	Gu
Nik	najuan najonan	najittuan najittunan	–	inyuan inyunan	–
Ik	eban ebanan	ebazan ebazenan	ninyuan ninyunan	–	ginduan giduzenan
Arek	juan jonan	jittuan jittunan	ninyunan ninyunan	induan indunan	ginuzen ginuzenan
Guk	geixuan gendunan	geixuazen gendunazen	–	inyugunn inyugunan	–
Areek	juen jonen	jittuen jittuezenan	ninduen	induen indunan	ginttuezan ginttuezan

### Orainaldia

Nor-Nori -Nork	Neri	Iri	Ari	Guri	Areei					
Nik	—	deuat/ deuaraz/	jetzat/ jetzaraz/	—	jetzet jetzeraz/					
Ik	estak/ estan	estazak/ estanz	—	—	etzak/ etzan	etزازak/ etzanaz	eskuk/ eskun	eskuaz/ eskunaz	etzek/ etzen	etزازen/ etزازenan
Arek	jestak/ jestan	jestazak/ jestanz	deuk/ deun	deuaz/ deunaz	jetzak/ jetzan	jetزازak/ jetزازanz	jeskuan/ jeskunan	jeskuazen/ jeskuazenan	etzek/ jetzane	jetzek/ jetzane
Guk	—	deuau/ deunau	deuazau/ deunazau	jetzau/ jetzanau	jetzauauz/ jetzanauz	—	—	jetzau/ jetzanau	jetzauz/ jetzanauz	
Areek	jestek/ jestene	jestezek/ jestenez	deuek/ deune	deuez/ deunez	jetzek/ jetzen	jetzezek/ jetzenez	jeskuek/ jeskune	jeskuez/ jeskunaz	jetzek/ jetzene	jetzezek/ jetzenez

### Lehenaldia

Nor-Nori -Nork	Neri	Iri	Ari	Guri	Areei					
Nik	—	neuan/ neuman	neuzen/ neuzan	najetzan /najetzanan	najetzazen /najetzazenan	—	—	jetzet/ /najetzanen	jetzerat/ /najetzanen	
Ik	estan/ estanan	estazen/ estazeza	—	—	etzan/ etzan	etزازen/ etزازenan	eskuan/ eskunan	eskuazen/ eskunazenan	etzen/ etzan	etzezzen/ etzezzenan
Arek	jestan/ jestanan	jestazan/ jestazenan	zeuan/ zeunan	zeuzen/ zeuzan	jetzan/ jetzan	jetزازen/ jetزازenan	eskuan	zezkuzen	jetzen/ jetzen	jetzezzen/ jetzezzenan
Guk	—	geuan/ geunan	zeuzen	gentzan/ gentzaunan	gentزازen/ gentزازenan	—	—	jetzaun/ gentzanazen	jetzaun/ gentzanazenan	
Areek	jesten/ jestenen	jestezzen/ jestezzenan	zeuen/ zeunen	zeuzen/ zeunan	jetzen/ jetzan	jetzezzen/ jetزازenan	jeskuan/ jeskunan	jeskuazen/ jeskunazen	jetzen/ jetzen	jetzezzen/ jetzezzenan

### BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, J., “Alokutibotasuna eta tratamenduak euskaraz: II, Markinaldeko kasua”, *ASJU*, 20:2, (1986), 419-486.  
 ETXEBARRIA, T., “Flexiones verbales de Eibar”, *Euskera*, VIII-IX, (1963-64), 53-130.

- Euskal Herriko hizkuntza atlasa*, Ohiko euskal mintzamoldeen antologia, Euskaltzaindia, (1999).
- PUJANA, P., “Oletako Euskal Aditza”, Diputación Foral de Álava-Consejo de Cultura, (1977).
- SAN MARTIN, J., “Eibarko aditz laguntzailearen paradigmak”, *IKER-1*, Euskaltzaindia, (1981), 331-342.

#### LABURPENEA

Artikulu honetan bizkaieraren eremuko bi azpieuskalkiren hikako tratamenduei buruzko azterlan txiki bat aurkezten da. Datuak biltzeko, egileak bi herritara jo du: Oleta (Araba) eta Eibar (Gipuzkoa). Bietan ere hiztun bana aukeratu eta elkarrizketatu du, bere inguruko hikako tratamenduaren berri jasotzeko. Argi dago askoz ere hiztun gehiago behar direla, azterlana zientifikoa izango bada. Jakingarri askoak dira, hala ere, hiztun horiek emandako argibideak, nahiz eta begien bistakoa den euskararen tratamendu berezi hori sarritan eskualde berean etxe etxe eta herriz herri aldatzen dela eta bi lagunek emandako datuak ezin direla inola ere ezeren arau izan. Lantxo honek lau atal ditu: galdetegia, erdarazko esaldi batzuen itzulpena, iruzkina eta aditzen paradigma, Oletako eta Eibarko bi hiztunen laguntzarekin ondua.

#### RESUMEN

En este artículo se presenta un breve estudio sobre el uso que se hace del tuteo en dos subdialectos del dialecto vizcaíno vasco. Para recopilar datos, el autor ha ido en persona a Oleta (Álava) y Eibar (Guipúzcoa), y en cada uno de estos pueblos ha entrevistado a un vecino, que le ha dado su opinión sobre ese tratamiento lingüístico tan peculiar en euskera. Es evidente que se necesita el testimonio de muchos más hablantes para que una investigación se pueda calificar de científica. Además, el uso del tuteo varía incluso entre pueblos de una misma comarca. Por ello, no se puede extraer ninguna regla ni fijar ningún patrón de comportamiento basándose en los datos aportados por los dos hablantes, aunque sin duda resulten muy interesantes. El estudio está dividido en cuatro partes: cuestionario, traducción de unas frases en castellano, comentario y paradigma verbal.

#### RÉSUMÉ

On présente dans cet article une brève étude sur l'usage qui se fait du tutoiement au travers de deux sous dialectes du dialecte biscayen. Afin de recueillir des données, l'auteur s'est rendu à Oleta (Alava) et à Eibar (Guipuzcoa), et a interviewé dans chacun de ces deux villages un habitant qui lui a donné son opinion sur ce traitement linguistique si particulier à l'euskera. Il est évident que le témoignage de beaucoup plus de personnes parlant la langue est nécessaire pour qu'une étude puisse être qualifiée de scientifique. De plus, l'usage du tutoiement varie entre des villages de la même région. On ne peut pour cette raison extraire de règle ni fixer de patron de comportement en se basant sur les données apportées par les deux habitants, bien qu'elles soient, sans aucun doute, très intéressantes. L'étude est divisée en quatre parties: questionnaire, traduction de quelques phrases en espagnol, commentaire et paradigme verbal.

#### ABSTRACT

In this article we find a brief research on “hika”, a linguistic address that shows close relationships mainly used among friends and relatives characteristic of the Basque language. This research is focused on two subdialects of the dialect spoken in Biscay. To fulfil his aim, the writer visited Oleta (Araba)

and Eibar (Gipuzkoa), and, in both places, he interviewed a Basque speaker who gave his/her opinion about the “hika” address. Obviously, many more samples are needed to make a research really scientific. Moreover, the use of “hika” changes greatly among villages of the same area. Therefore, no fixed rules or working patterns can be deduced in the light of the information given by these two speakers, though, no wonder, some aspects of this report may be found really interesting. This research is divided into four parts: a survey, a translation of some sentences in Spanish, a commentary, and a verbal paradigm.